

## Alde Zaharreko trafiko arazoa ekiditeko kanpaina

**TOLOSA** ▶ Alde Zaharreko ostalariak, merkatariek eta bizilagunek, Udalak eta Igarondok babesten dute

**ARAUDIA** ▶ Astelehenean hasiko da; 'Oinezkoaren eskutik' lelopean, haiei lehentasuna ematea du xede ▶ 3

**AMEZKETA** ▶

Gaur hasiko da Joxean Tolosa Pilota Txapelketa

Ugarteko frontoian izango dira partidak ▶ 5

## Herriko 100 haur Goiza Pasa eta Gaztelekuko aisialdi programetan

**IRURA** ▶ Goizero elkartzen dira era guztietako ekintzak egin eta jolasean ondo pasatzeko ▶ 4

**LEITZA** ▶

## Aurrera elkarteko batzordeak, osatuta ▶ 7



Aurrerako zuzendaritzako eta batzordeetako kideak. J. ASTIBIA

L. GARCIA



## Gure gomendioa



Gasteizaldia  
Irene Nazariozky



Aloratu  
Ane Alorzu



El perfeccionista en la cocina  
Julian Barnes



El marqués de Salazar  
Luis Pereda

[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

elkar

elkar ezagutzen dugulako

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

ERAKUSKETA ▶

# Errepublika garaiak gogoratu

Iganderarte ikusgai da Kultur Etxean, 'Errepublika, memoria eta etorkizuna'

ESTI EZEIZA

Tolosako Ezker Batua Berdeak-ek atzo arratsaldean inauratu zuen *Errepublika, memoria eta etorkizuna* izeneko erakusketa. Hala, Kultur Etxean ikusgai dira Errepublikaren inguruko 100 irudi. Hauetako gehienak argazkiak badira ere, garaioko kartel eta dokumentuak ere ikus daitezke, baita bideo bat ere. Hau ikusgai izango da iganderarte, hau da, hilaren 9a arte. Hala ere, orain arteko agiriez gain, gehiago biltzeko asmoa dute; «jendearen parte-hartzearen esku dago hau». Ezkerrekoek deialdi bat luzatu baitiete garai haiei agiri, argazki, bandera edo beste edozein material gordetzen dutenei. Beraz, erakusketa handituz joango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batzuetan ere ikusteko aukera izango dute. Orain arte, Oreretan, Iruenen, Lasarten eta Donostian ipini dute.

Erakusketa honekin II. Errepublikaren aldarrikapenaren 75. urteurrena oroitu nahi dute. Jose Mari Vieites Ezker Batua Berdeak-eko ordezkariaren



JOSE MARI VIEITES  
EZKER BATUKO ORDEZKARIA

«Erakusketa honen helburua herritarrei, errepublika garai bat egon zela gogoraraztea da»

«Monarkia harrapari eta inposatzaile honen aurretik herriaren errejimena bat egon zen»

esanetan, «egitasmo honen xedea da herritarrei gogoraraztea hemen errepublika bat egon zela, eta monarkia inposatzaile honen aurretik, herriaren errejimena bat zegoela».

Bestalde, diktaduraren aurkako gerran emakumeak izan zuten lekua ere azpimarratu nahi dute; horregatik, erakusketaren zati handi bat beraiek betetzen dute. Honez gain, leku berezi bat eskaini diote Dolores Ibarruriri, emakume hau garai haiei eredu izan baita, bai gerlari gisa, eta baita emakume gisa ere.

Erakusketa Errepublika aldarrikatu zen garaitik abiatzen da, eta 1931-1933 bitarteko etapa horretan zentratzen da. Izan ere, antolatzaileek nahia go izan dute Gerra Zibileko irudiak mugatzea eta II. Errepublikako hastapenetan zentratzea. Argazkiak eta dokumentazioa garai haiei errepublikaren jarraitzaileengandik eta hauen ondorengoengandik jaso dituzte. Agiri hauek Euskal Autonomia Erkidegoan zentratzen dira batik bat. Ezker Batuko ordezkariaren arabera, «Tolosaldea inoiz ez da izan oso errepublikazalea, hemen karlistek indar gehiago izan zuten». Bixikeria gisa, agiri batzuetan gudaroste frankistarekin borroka egin zuten gipuzkoarren kopurua ageri da. Eta herri bakoitzetik zenbaterik parte hartu zuten ikus daitezke.

Bildutako dokumentuen artean, errepublikar gerlari bati bere emazteak idatzitako esku-tik bat aurki daitezke. Baita gerran desagertutako enbifikazioa ere. Hau da, gerran zegoen bat desagertzean, familikoei bidaltzen zitzaizaien gutuna. Konstituzioko zenbait akta ere ikuska daitezke agiriaren artean, eta argazki oso esanguratsuak. Vieitesek Hrtzari adierazi zion bezala, «baliteke batzuei ezer ez esatea erakusketa honek, baina ziurrenik beste askorentzat oso garrantzitsua izango da hau gogoraraztea». Hala, tolosar guztiak gonbidatu nahi ditu erakusketa ikustera eta, bide batez, memoria historikoa finkatu eta berreskuratzera.



Eibar. 1931an, Eibarren, Indalecio Prietok Untzagako enparantzian udaletxeko balkoitik hitzaldi bat eskaini zuen, Errepublikaren hasiera aldarrikatuz. E. EZEIZA



Hasierak. Argazkietan Errepublika garaiaren bilakaera ikus daitezke; hala, erakusketa honetan ditugu, 1931an, II. Errepublika aldarrikatu zireneko lehen irudiak. E. EZEIZA



Esloganak. Irudietan, garai haiei deklarazioez, eta argazkiz gain, II. Errepublikako esloganak ere bildu dituzte. Hauek propaganda gisa-eta erabiltzen zituzten kartelak dira. E. EZEIZA



Emakumeak. Erakusketa honetan omenaldi bat egin nahi izan diete emakumeei, hauek lan handia egin baituzten garai haiei. Hala, bereziki, Dolores Ibarruriri leku berezi bat egin diote erakusketan. Errepublikarrentzat erreferente izan baita, emakume eta gerlari gisa. E. EZEIZA

TOLOSA ▶ TRAFIKOA

# Kanpaina «zorrotza» abian, Alde Zaharreko arazoa ekiditeko

‘Oinezkoaren eskutik’ leloarekin, astelehenean ekingo diote oinezkoei lehentasuna ematea helburu duen kanpainari



Beatriz Ortiz de Zarate, Anate Iturralde, Yurre Peñagarikano, Iñaki Zabalza eta Antton Lekuona. N. L.

NOELIA LATABURU

Tolosako Alde Zaharrak pairatzen duen trafiko arazoari irtenbidea eman nahian, *Oinezkoaren eskutik* kanpaina berezia jarriko dute abian astelehenean aurrera, Alde Zaharra Dendak, Igarondo merkatarien elkarteak, Alde Zaharreko Bizilagunak, Ezpeleta Alde Zaharreko ostalariek elkarteak eta Tolosako Udalak babestua.

Horretarako, araudi berria azaltzen duen orritxo eta liburuxka banatuko dituzte Alde

Zaharreko dendan, bizilagunen eta, oro har, tolosarron artean. Etxez etxe banatuko dituzte, araudiaren 12.000 ale eta liburuxkaren 10.000 ale. «Liburuxka oso didaktikoa eta ulerterraza da», azaldu zuen, atzoko aurkezpenean, Udaleko ordezkari Yurre Peñagarikano. «Jendea Alde Zaharrera gonbidatu nahi dugu, baina autoek arduraz jokatzeko eskatuz eta errespetua izan dezaten, bizi kalitate hobetzeko». Hau guztia, beti ere, «Alde Zaharra oinezkoentzako gune delako».

Udaltzaingoa egiteko

Atzo eginiko aurkezpenean Udaltzaingo buru Iñaki Zabalzak ere azaldu zuen zein izango den euren lana kanpaina honetan. «Arazoa denon artean konpondu behar dugu eta zorrotzak izango gara neurriekin», adierazi zuen Zabalzak. Merkantziek Alde Zaharrean duten arazoa ekiditeko, besteak beste, «deskargatzeko gune gehiago ezarriko dira Gorosabel kalean, Triangulua TAOko zona bilakatuko delarik».

ARAUDIA ▶

▶ Zamalanetarako irekitzeko ordutegiak: goizez, 08:00etatik 12:00etara; arratsaldez, 15:30etik 17:30era. Zutoinak jarrita (garraiariari eskatuta irekiko da).

▶ 3.500 kilogramo baino gutxiago pisatzen duen edozein ibilgailuk banatu ahal izango ditu merkantziak edo zamalanak.

▶ Gehienezko egonaldia 20 minutukoa izango da.

▶ Edariak eta butanoak: 14:30etik 16:00etara.

▶ Gremioentzako sistema berezia: sarrera askea baina lanabesak deskaratzeko adina bakarrik izango dute.

▶ Larunbaterako ferian behin produktuak deskargatuta ibilgailua atera beharko dute.

▶ Dendetako bezeroek erosketak egin eta sartu ahal izango dute, horretarako dendetan sartzeko txartela eskatu beharko dute.

Erositakoa ibilgailuan sartzeko adina denbora utziko zaie.

▶ Auzotarrek txartela erabili beharko dute. Erosketak, mudantzak eta gauza pisutsuak edota mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eramateko udaltzainei deitu beharko zaie, Nafarroako zubiko sarreran dagoen interfona erabiliz.

Halaber, lehen bi asteetan udaltzainek azalduko diete kanpaina, Alde Zaharreko zubitik autoz igarotzen direnei. Irailean balorazioa egingo dute, «eragina aztertzeko».

TOLOSA ▶

## Bide Ertzean eta Cotti kontzertuko sarrerak, salgai

Heldu den irailaren 9an Tolosako Bide Ertzean taldeak eta Cotti musikari argentinarak emanaldia eskainiko dute Tolosako zezen-plazan, Tolosaren 750. urteurrenaren harira. Bertara joan nahi duenak eskuragarri ditu dagoeneko sarrerak Servikutan, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean, edo 943 00 12 00 telefono zenbakian.

ALEGIA ▶

## Miren Ortegaren margolanak, jubilatuen

Alegiako jubilatuen tabernan Miren Ortegaren koadroen erakusketa izango da ikusgai, hilabete osoan zehar, astelehenean izan ezik. Bertan kutsu inpresionista duten margolanak daude, inguruko paisaia ezagunak islatuz.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarano autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ KIROLA

## XXXVIII. Tolosa CFko Paleta Txapelketa abian da dagoeneko

Guztira 14 bikote lehiatuko dira Berazubiko pilotalekuan; gaur beste bi partida izango dira

ERREDAKZIOA

Herenegun ekin zioten XXXVIII. Tolosa CFko Paleta Txapelketari. Urtez urte usadio bilakatu da Tolosak antolatzen duen txapelketa, eta gero eta parte-hartzaile gehiago ditu; hala, aurtengoan 14 bikotek hartuko dute parte arratsaldeko jokatuko diren partidetan.

Gaurkoan ere zaletuek izango dute zer ikusia Berazubikoan; izan ere, bi neurketa izango dira jokoan. Lehenengoan, 19:00etan hasiko dena, Zabaleta eta Urdañapilleta jokalariek osatutako bikotea Galarraga eta Landa izango dituzte aurrez aurre. Bigarrenean, berriaz, Lontxo eta Nabazal Imaz eta Garmendiaren aurka ariko



Guztira, 14 bikotek hartuko dute parte; argazkian, iaz partida bat. J. S.

dira. Hil honen 20an eta 21ean final-laurdenak jokatuko dituzte sailkatuek; finalerdiak, berriaz, hilaren 26an izango dira,

asteazkenarekin. Eta final handia hilaren 28an jokatuko dute bi bikote irabazleek. Ondoren, afari legea egingo dute.



IRURA ▶ ASIA

# Herriko 100 haur jolasean goiz guztietan

Goiza Pasa programan 80 haur daude eta Gaztelekuko taldean beste 20

IMANOL GARCIA

Irurako ia haur eta gaztetxo guztiak badute zer egin goize-ro. Udalak antolatutako Goiza Pasa programan bi eta hamabi urte bitartekok 80 haur inguru daude izena emanda, eta Gaztelekuko taldean beste hogeigazte hamahiru eta hamasei urte bitartekoak. Parte hartzen dutenek ondo pasa dezaten dute helburu. Marimi Ugalde alkateak azaldu duenez, «Udalak esfortzu handia egiten du egitasmo hau antolatzeko».

Ekainaren 26an hasi ziren

eta hilaren 28a arte iraungo du programak. 10:00etatik 13:00-etara irauten du, baina egun guztiko irteerak ere antolatzen dituzte. Jolasa da nagusi egitarau honetan.

Atzokoa egun berezia izan zen, San Fermin festak oinarri hartuta txupinazoa bota baitzuten udaletxeko balkoitik. Gero txikiak goizean zehar egindako zezen maskara jarri eta entzierroa egin zuten zaharagoen atzetik. Azkenik, Gaztelekuko taldeak maskuriarekin aritu ziren txikiak harraipaten.



Entzierroa irudikatu zuten atzo eguerdian Irurako plazan herriko haurrek. I. GARCIA

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK



Haur parkearen inguruan ari dira obrak egiten. I. GARCIA

## San Joan kalearen atzeko haur parkera iristeko bideak hobetzen ari dira

ERREDAKZIOA

Modesto Enea-Igarabideko haur parkeko sarreretan, San Juan kaleko atzealdean aurki daitezkeen gabeziak konpontzeko bi esku-hartze martxan jarri ditu duela egun batzuetatik Udalak. Horrela, egunero haur jolas parke honetara joan diren pertsonen eskaerei erantzuna ematen zaie. Esku-hartze horietako bat jokoan pista eta haur parkea lotzen dituen eskaileretan garatzen ari da eta, bestea, San Joan kalea Buztifa-

ga eraikuntzarekin lotzen dituen eskaileretan eta eraikuntzatik parkera doan parterrean oinarritzen da.

Haur parkeak urteko egun guztietan eskola-ume, guraso edota adinduak biltzen dituen lekua da. Esku-hartzeek hobekuntza garrantzitsua suposatzen dute erortze arriskua gutxitu egiten delako, eta akzesibilitate edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat (ezinduentzat, adineko pertsonentzat...) onura handia suposatzen dutelako.

ADUNA ▶

## Aguazila ordezkatzeko langilea behar du Udalak

Izena emateko edo informatzeko hilaren 14a baino lehen udaletxera jo behar da

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak bando bidez azaldu duenez, aguazila oporretan dagoenean ordezkatzeko pertsona bat kontratatuko premia du. Lan baldintzak ondorengoak dira: lanaldi osoan, aguazilarekin prestatzeko eta ordezkatzeko. Interesatuari eskatzen zaiona, berriz, hauxe: B1 autoko gida baimena izatea, euskaraz jakitea eta gutxienez graduaduko titulua edo antzekoa izatea.

Bandoan jartzen duenez, kontratatuko den langileak Adunako jaietan lana egin beharko du. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko interesatuek Adunako udaletxera azaldu edo telefonoz deitu (943 69 25 71 zenbakira) behar dute, hilaren 14a baino lehen.

**OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

Amestu izan duzun...

**MERKEALDIA**

**Premier** koltxoa  
Gama altuko koltxoia gerrialdeko errefortzuarekin

**Serta**

**TIENDAS**

**bede**  
sueños de calidad  
www.beds.es

**%30** erainoko **DESKONTUA**

Lizardi plaza, 2  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 652 901

Peña y Goñi, 16  
20001 Donostia  
Tel.: 943 320 358

Tolosa etorbidea, 19  
20018 Donostia  
Tel.: 943 312 784

www.loadiak.com

Bezere arreta telefonoa: 922 560 221  
12 hilabeterainoko finantziatzea interesik gabe.  
Kate aintzindaria atsedan arloan 192 DENDEKIN.

AMEZKETA ▶ PILOTA

# Joxean Tolosa Pilota Txapelketa gaur hasiko da Ugarten

Kadeteak, gazteak eta senior mailakoak izango dira eskuz banakako partida guztiak jokatzeko, 21:00etatik aurrera



Renobales eta Belloso txapelkun izan ziren 2004an. OLALIA ESKITXABEL

**NEREA URBIZU**

Gaur jokatuko dira Joxean Tolosa Pilota Txapelketako lehenengo partidak. Aurtengoarekin hamazazpigarren urtea izango da.

Ohitura den bezala, Ugarterko pilotalekuan jokatuko dituzte buruz buruko partida guztiak. Kadeteak, jubenilak eta nagusi mailako partidak jokatzen dira beti, eta hala izango da aurten ere.

Aurten, Euskadiko Txapelketako lehenengo manomaniak, herrialde bakoitzeko txapelkunak eta elkararte dituen konpromisoen araberrako gonbidatuak izango dira.

Txapelketak gaur izango du hasiera, eta iraileko bigarren aste aldera bukatuko da.

Gaur eta bihar hainbat norgehiagoka jokatuko dituzte Ugarterko frontoian. Gaur, 21:00etan, Otamendi eta Olaetxea pilotariak irekiko dute

**PARTIDAK ▶**

**GAUR, 21:00ETAN**

**Kadeteak.** Otamendi eta Olaetxea aurrez aurre.

**Gazteak.** Yeregi-Beloki.

**Nagusiak.** Zelaia-Vicente.

**BIHAR, 16:00ETAN**

**Kadeteak.** Otegi-Mendinueta.

**Gazteak.** Jauregi-Saez.

**Nagusiak.** Ugartemendia-Goenaga.

**BIHAR, 22:00ETAN**

**Kadeteak.** Goienetxe-Gaztañaga.

**Gazteak.** Garmendia-Azpitarte.

**Nagusiak.** Azpiazu-Martinez.

XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa, jarraian beste bi partidak izanik.

**Joxean Tolosaren omenez**

Joxean Tolosa amezketarrak Retegi II.ari 1989an 22-19 irabazi zion eguna gogoan izan zuten Joxean Tolosa Pilota Txapelketa antolatu zutenean.

Txapelketa hau urtetik urtera indarra hartzen doa. Egun, ia punta-puntan daudenak txapelketa honetan ibiliak dira; esaterako, Mikel Belloso eta Ugaitz Renobales.

**ALBIZTUR ▶**

## Gazteentzako 18 etxebizitza, Trati enpresaren esku

Albizturko Ertartekoaren lurretan 18 etxebizitza egiten ari dira. Zozketa egiteko 20 aurkeztu ziren, eta azkenean, herriko bertako 16 gaztek eta 2 kanpotarrek eman dute ize-na. Bi fatxada aukeratu dituzte eta kanpoko argiak ere aste honetan aukeratu dituzte. Trati enpresa da eraikitzen ari dena. Udalaren bazi zitutzen obrak, eta apirilera-ko bukatzea espero dute.

**IKAZTEGIETA ▶**

## Zaborren tasa ordaintzeko epea irekita dago

2006ko lehenengo sei hilabete-ko zabor bilketa tasari dagokion errolda onartu dute Ikaztegieta, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea abuztuaren 3ra arte dago irekita, eta ordaintzeko banketxetan nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak abuztuaren 3an kobratuko dira.

**ALEGIA ▶**



Zikiro jatea jada arrunta da jaietan. Irudian, Lizartza. INIGO TERRADILLOS

## Zikiro jaterako txartelak jada salgai

Alegiako festen baitan, hilaren 14an, ostiralean, hain zuzen ere, zikiro jatea izango da herriko plazan. Bertara joateko txartela behar da, eta 15 eurotan dago salgai, Etxeberria, Hilario Berri, Ixkina, Jubilatuen tabernan eta Kultur Etxean. 21:00etan izango da afaria. Antolatzaileek txartela lehenbailehen erostea eskatu dute, honela haien lana erraztuz.

# Uda honetan

## ekhipoliki

SONY ERICSSON Z520

LG F340

SAMSUNG E250

# 9

-ren truke

**Doravis S.A.**  
INFORMATIKA Y COMUNICACIONES

San Francisco, 19  
Tolosa  
☎ 943 698 126

Euskaltel San Francisco Orolda

## GUTUN@K ▶

## Belauntzako alkateari

Ez dugu sorpresaz jaso Edurne Arbelegiren, Belauntzako alkatearen, azken gutun irekia. Berriz ere, zure desadostasuna eta zure haserredia erakusten duzu ezker abertzalearekiko ez ezik, zuekin bat ez dagoen guztiekin. Oraingo honean, aurtengo sanjoan zirela eta, berak eta bere koadrilak antolatutako festa «ofizialetan» hitz egin beharrean, herritarren multzo handi batek antolatuta eta parte hartutako jai alternatiboetaz mintzo zaigu.

Horra hemen lehenengo datu esanguratsua, zuek antolatutako festen «arrakastaz» hitzik ez duzu egiten eta nahia duzu zuk definitzen dituzun «jai alternatibo-pribatuak»

hankaz gora jarri nahi izatea. Zergatik, orduan, hainbeste buruhauste sortzen dizkizute, Edurne, lau suzirik, afari herri-tar batek eta patata tortilla txapelketak? Behintzat, Edurne, herriko jaun eta jabe bilakatu zaretenok zuen festetan parte ez hartzeko eskubidea ez diguzue ukatuko, ezta? Edo hori ere bai? Edo gure jaiak —xumeak, baina geureak— antolatzeko eskubidea debekatuko duzu?

Gure aldetik, zuen festekiko jarrera oso garbia izan da. Ez dugu parte hartzen. Ez dugu parte hartu nahi izan zuen komedia-muntaiak «yo me lo guiso yo me lo como» horretan. Udalak egindako balizko gonbidapenez San Joan jaiak antolatzeko hori... herriatik kanpoko jendeak sinestartzeko besterik ez da. Hemen denok ondo dakigu zuek alkatetza lapurtu

zenutenetik zirrikiturik txiki-ena ez dagoela herriko gauzetan parte hartzeko. Hori bai, zuen jaiak herritarren sosekin ordainduta. Gure «jai alternatibo-pribatu» horietarako ez dugu batere diru laguntzarik jaso Udaletik. Ezta eskatu ere. Dena gure poltsikotik eta gure borondatearekin egin dugu. Eta jaiak antolatzeko bilerengatik ez dugu dirurik kobratu. Gureak ez dira ezkutuko Udal batzordeak izan. Ez. Gu ahal dugunean, lanordutik kanpo, Gaztetearen elkartu gara.

Horregatik guztiagatik ulertzen zaitugu, Edurne. Ulertzen dugu zure gorrotoa eta egonezina, zeren zuek herriko kazi-keok, gaizki sentitzen zarete zuen miserietan murgilduta. Gure konplizitatea nahi/beharruzue. Txikietan ezkutuan, lehenengo zigarroak erretzera

joaten ginela, anaia txikia erretzera bultzatzen genuen bezalaxe. Gero, gure amaren aurrean esplikazioa eman beharra zegoenean, «bai, nik gaizki egin dut, baina honek ere bai» esaten genionean bezalaxe.

Arren, ez aipatu herriko ume, neskek eta mutilak; are gutxiago bakea. Neure haurrek oraindik ez dute ahaztu beraien etxeraino mehatxuka eta oihuka hurbildu zen makarra eta faxistaren aurpegia. Herriko bi emakumek ahazten ez duten bezala beraiek eraso zituen eta epaitegiak zigortu zuena, zuen babesa jasotzen duela. Zuen bake irrikaren beste hainbat adibideekin segi dezakegu.

Azkenik, ez da egia —hori ere ez— Etxebesteren biltegia erre zenean (portzietari, noiz-bait argituko da/duzue lehen

eta orain gertatutakoa?) Jusu Jon jeltzaleak, zure azken orduko laguna nonbait, zu eredu-zat hartuta botatuko hitzak. Zu/zuek ez zinen/zineten ezker abertzaleatik atera biolentzia eta borroka armatua gaitzes-ten zenutelako. Hori ondo asko dakizu/dakigu zurekin urte hauetan ezker abertzalearen baitan militatu dugunok. Zu, Edurne, ez zinen ezker abertzaleatik atera. Geuk bota zintugun. Ustelagatik. Ezker abertzalean ustelkeria ez dugulako onartzen. Marbella txikiak ez ditugulako nahi, are gutxiago Tolosaldean.

Denborak bakoitza bere tokian jarri du. Zer hintzen eta non hago, Edurne.

MANU AZKARATE (EZKER ABERTZALEKO MILITANTEA ETA JAI ALTERNATIBOETAKO PARTE-HARTZAILEA) ▶ BELAUNTZA

## IBARRA ▶ GIZARTEA

## IÑIGO TERRADILLOS

Bi egunetan zehar, moto gidarien gune bihurturik ikusi du bere burua Ibarrek, IV. Langostino Moto Festa burutu baita bertan. Larunbata eta igandean izan zen festa berezian, ordea, motozaleez gain herritar ugari ere hartu zuen parte; izan ere, moto birez eta bazkari-erz eta afariez gain, ikuskizun ugari gozatzeko aukera izan zuen.

Hain zuzen ere, Langostino moto elkarteak, horixe azpimarratu nahi izan du aurtengo festaz, jendearen parte-hartzea; «oso positiboa izan da aurtengoa, eta oso gustura gaude; iaz baino jende gehiago izan da, larunbatean, esaterako, 300 motozaletik gora izan ziren, eta igandean, 290 lagun batu genituen bazkarian». Ibar-rako elkartearen arabera, «ur-tetik urtera parte-hartzaileen kopurua igotzen ari da, eta aipatzekoa da herrialde desberdinetako jendea etortzen dela, baina gipuzkoarren kopurua ere gora egin duela; izan ere, %50a izan dira bertakoak». Halaber, igo den beste kopurua emakumeen parte-hartzearena izan da, %30a izan da, hain

# Oso jendetsua izan da Langostino Moto Festa

Gipuzkoarren eta emakumezkoen kopuruak gora egin duela azpimarratu dute; irailean beste ekitaldi bat egingo dute



290 motozale bildu ziren iragan igandean egin zuten bazkarira. MADDI SOROA

zuzen; «horrelako festetan ez da oso ohikoa izaten emakume asko ikustea, horregatik aipatzekoa da aurten izan dugun kopurua». Ekitaldien artean, bestalde, larunbatean izan zen

Narcis Rocaren ikuskizuna eta jokoak azpimarratu nahi izan dituzte. Langostino elkarteak Moto Festa egiten lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.

Hurrengo ekitaldiari dago-kionez, jadanik prestatzen hasik direla azaldu dute: «irailean izango da, lehendabizi bira txiki bat egingo dugu, eta ondoren kontzertu bat izango da».

## BERASTEGI ▶

## Ludoteka zerbitzua abian, hilaren 28ra arte

Ludoteka zerbitzua hilaren 28ra bitarte izango da, egunero, 15:30etik 17:30era. Bestalde, astearteetan eta ostegunetan, ludotekaren ondoren, patinaje ikastaroa egiteko aukera ere izango dute gaztetxoek.

## IBARRA ▶

## Jaietako zozketako zorbakiak salgai

Urtero bezala, salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkartearen eta Zubiaurren San Bartolome jaietako zozketako zorbakiak, 3 zorbaki euro baten truke. Aurtengoa, Sahara Bizi, Tolosaldea Sahararekin elkartearentzat izango da sarrietatik soberan geratzen den dirua.

## BERASTEGI ▶

## Podologoaren bisita izango da hilaren 22an

Hilaren 22an, 09:30etik 12:15era izango da Berastegiko Gaitzaindongo jubilatu elkartearen podologoaren bisita. Izena emateko 943 68 32 64 edota 943 68 32 02 zorbakietara deitu beharko da.

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.  
**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentuduna. 635 74 52 91.

**Zaintzailea.** Emakumea behar da haurrak zaintzeko Alegian. 615 00 32 02.

## SALGAI

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Berrobin. 29 milioi eta erdi. Negoziagarria. 618 83 32 56.

**Etxea.** Etxea salgai Villabonan. Partikulari. 664 58 62 11. 17:00etatik 21:00etara.

**Etxebizitza.** Leitzan 100 m<sup>2</sup>-ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitzua. Deitu 699 46 13 65 telefono zorbakira.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

‘Zeuk idatzi’. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera eskaintzen dizu eskualdeko egunkariaren webguneak *Zeuk idatzi* izeneko atalean. ▶



LEITZA ▶ GIZARTEA

# Aurrera KEko batzordeak osatuta daude

Gehiena jende berria sartu da bai zuzendaritzan eta bai batzordeetan

JAIONE ASTIBIA

Asteazken iluntzean egin zuten Aurrera Kirol Elkarteko batzordekideek aurreneko bilera; atzo zortzi egindako batzar erabakiorrean elkartearen barne antolaketa parte hartzeko izena eman ondoren.

Egun hartan, azkenik, elkarteko barne funtzionamendua bermatzeko beharrezko batzordeak eratzeko konpromisoa agertu eta zuzendaritzakoa orduan bertan zehaztu zuten; gainerakoak, herenegun.

Hala, sei laguneko taldeak

hartu du elkartearen zuzendaritzako ardura. Lehendakari gisa, Karlos Agirrek jarraituko duela, gainerako kide guztiak berriak dira: Julian Zabaleta izanen da lehendakariorde; idazkaritzako lanak Aitziber Sagastibeltzak eta Naiara Agirrek egingen dituzte, aurrerantzean; eta diruzaintzaren arloa ere, bi lagunek eramanen dute, Jon Kasaresek eta Iraitz Uriartek. Bi urterako, sei lagun hauek hartu dute, beraz, elkartearen martxaren ardura.

Baina ez dira bakarrik ariko lan horretan. Izan ere, orain



Aurrera elkarteko zuzendaritzako eta batzordeetako kideak, asteazkenean bilera egin aurretik. JAIONE ASTIBIA

arte bezala, arlokako batzorde desberdinak ere eratu baitituzte. Hori zehaztea izan zuten aurreneko eginbeharra aitaturako bilera horretan. 30 bat lagun ariko dira batzorde desberdinetan lanean, HITZAK jakin duenez. Etxea eta kultura; kirola; zaldiak; festak eta ihoteak; eta eguberriak dira horiek.

## Indartuta

«Deusezetik 30 lagun izatera igaro gara. Badirudi jendeak begiak ireki dituela eta elkar- oso indartuta atera da, desagertzeko arriskutik», azaldu du Agirrek: «Oso baikorra da, gainera, osatu den talde berria, bai juntan eta bai batzorde-

deetan ere, lau-bost bat ez beste guztiak, kide berriak direla; hori oso baliotsua da».

Bestealde, egitasmoen artean etxeari erabilera emateko asmoa agertu du. «Halako lokalak edukita, bileretarako bakarra erabiltzen dira. Urte guzti- zeharretarako plangintza» egitekoa omen dute.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Leitzar baten eskutik, festa!

Ohiko oihuen ordez «Gora sanferminak!» esanez piztu zuten Iruñeko txupinazoko etxaferoa Jabier Eskubi leitzarrak

J. ASTIBIA

Esanera dioenez «Iruñearen pare» omen gara Leitzan eta honetakoan, puskatxo batean behinik behin hori sinisteko aitzakairik egokitu da parean: Euskal Herrikoak ez ezik «munduko onenak» izateko ospea duten festen hasiera, sanferminena, sortzez leitzarra den Jabier Eskubik eman baitzuen atzo.

Atzo eguerdi-eguerditik hasita zuri-gorritz jantzita dago

Iruñea, gaur dute egun handia, San Fermin santuaren eguna eta aurtengoan, gainera, lehenaz gainera gehiagotan aitatu dena, akaso, festen hasierako oihua zela eta ez zela.

## Oihu berriak

Izan ere, Yolanda Barcina alkateak aurtengo txupinazorako Iruñeko udaletxeko Aralar taldea izendatu zuenetik ez da beste gairik izan, hauek tradiziozkoa omen den «Gora San

Fermin» iragarpen oihua, «Gora sanferminak»-ekin aldatuko zutela esanda gero, «agnostikoak» izaki.

Hala, etxaferoa sutzerako, festen hasiera iragarritako hitzekin egin zuen Eskubik, «Iruindarrak, gora sanferminak! Viva las fiestas de San Fermin!» oihukatu, orratzik ere kabituko ez zen plaza bete jendetzaren aurrean.

Hemen ere pasadizo zelebra gertatu zen, ordea, txupinazoa lehertzerako, zinego-



Eskubi —erdikoa— atzo txupinazoa botatzen. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

tziki ondoan zuten Barcina alkateak «¡Viva San Fermin! Gora San Fermin!» oihukatu baitzuen baztarretik, santua goraiatu gabe ezin geldituz, ez-ohiko jokabidean; kasu honi dagokionez, noski; hori ere ez baita «tradiziozkoa», ale-

gia, txupineroaz gain, bazterretik beste oihu batzuk egitea.

Kontuak kontu, modu batera edo bestera, hurrengo astea arte iraunen duen festa lehertu zen jendartean, zapi gorriak lepoan jarri. Eta horixe, gainerako kontuak, kontu. ◀

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira [tolosaldean@tolosaldecohitz.a](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitz.a)

hilberria ▶



**Miel Mari Arrospide Armendariz**



Bat egiten dugu  
famiariaren atxekabearekin

San Juan Herri Eskolak eta Aralar Institutuak  
eta Guraso Elkarreak

ALEGIA, 2006ko uztailearen 7a



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteak irteera antolatuta du Belagoara hilaren 12 eta 13an Hiru behien festa ikustera. Bazkaria Erriberrin, afaria eta hotela Zangozan. Prezioa: 115 euro. Izen-ematea, elkartean. **Tolosa.** Alde Zaharreko sanferminak, Plaza Berrian: 12:00etan, suziriak, Nafarroako jotak eta buruhandiak; 17:30ean, entzierrero txikia: Plaza Berria-Erremontari-Korreo-Plaza Berria; ondoren, bokolatea; 20:00etan, *Pobre de mi* abestuko dute. **Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatuta ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara. **Tolosa.** Tolosa CFren XXXVIII. Paleta Txapelketako partidak, Berazubiko frontoian, 19:00etan: Artola-Goioetxea / Otermin-Goitia; Lontxo-Nazabal / Imaz-Garmendia.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan. **Hernalde.** Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai. **Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen lanak. Hilaren 8a arte, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan. **Tolosa.** Iñaki Epelderen, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren margolanak, Errotan. **Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzon.


**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
Ibarra. Iturrioz, 1. Euskal Herria, 3.  
943 67 09 15.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.  
22:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Txupinazoa, gozokien banaketa, buruhandiak... Festa giroa zen nagusi atzo, eta sanferminetarako dotore jantzi ziren tolosarrak. L. MONTES

# Gora San Fermin!

**TOLOSA ▶ Alde Zaharreko bizilagunek bultzatuta, Tolosan ere badira sanferminak**



**LEIRE MONTES**

**H** amabiak jotzear, eta plaza jendez gainezka, suziria noiz jaurtiko zain. Ez, ez gara Iruñeko udaletxeko plazaz ari, Tolosako Plaza Berriari buruz baizik. Izan ere, Alde Zaharreko bizilagunek bultzatuta, Tolosan ere badira sanferminak.

Zapi gorriak lepoan lotuta gora begiratzen zuen etengabe etxeko txikiek, eztanda noiz entzungo zain. Beste batzuek ez zuten nonbati burrunba gustuko, eta belarriak estalita gurasoen edo aiton-amonen magalen babesa bilatzen zuten.

Suziriarekin batera lehertu zen festa. «Ez baduzue kantatzen ez dira buruhandiak aterako!», jakinarazi zieten haurrei megafoniatik. «A San Fermin pedimos...» eskaria oso-osorik abestu eta korrika alde egin zuten denek, maskurietatik ihesi. Goiz-pasa polita igaro zuten Plaza Berrira joandakoek. Arratsaldean jarraitu zuten festak eta gaur, besteak beste, entzierrero txikia korritzeko aukera izango dute.



Erruz bete zen Plaza Berria atzo; adi-adi jarraitu zuten gaztetxoek buruhandien irteera. L. MONTES

**AGURRAK ▶**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza** Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**badugu GILTZA, badugu HITZA**



- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna